

2026




EKONOMIA

GUKA



IKUS-ENTZUNEZKOAK

- Bideo korporatiboak • Zuzeneko ekitaldien emisioa • Bideo marketina
- Sare sozialetarako ikus-entzunezkoak • Publiirreportajeak
- Dokumentalak • Drone zerbitzua



GUKA  ZERBITZUAK

ZARENA **PLAZARA**

4-7

Unai Andueza

8-9

Aterpe

10-13

Eskualdeko egoera

14-15

Urola Kostako Udal Elkarte

16-17

Domusa Teknik

18-23

Miren Illarramendi

24-25

Gipuzkoako Foru Aldundia

26-27

Iraurgi Berritzen

28-29

Azpeitiko Udala

30-34

Azpeitikoop

Argitaratzailea:
**Urolako Komunikazio
 Taldea**

Kolaboratzailea:
Aroa Zamora

Helbidea:
 Soreasu 1
 AZPEITIA
 943-81 38 41
 943-89 00 17
 urolakosta@ukt.eus

GUKA
 ZERBITZUAK

lakeri
 Elkadura eta Kontsumo Jasangarria Lantzen

"Ekintzaz eta proiektu sozioekonomiko eraldatzaileez bete zuen auzo eta herriko kaleak eta elkarrekin irudikatu eta elikatu ditzagun etorkizun bizigarriak"

**Ekintzaz
 ereindako
 herria,
 EGUNEROKO
 uzta berria.**

10. — urteurrena

"UROLA KOSTAK PISU ESTRATEGIKOA DU GIPUZKOAKO EKONOMIAN, BEREZIKI ENPRESA EGITURAGATIK ETA TOKIKO MERKATARITZAREN INDARRAGATIK"

UNAI ANDUEZA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoen saileko diputatua

Unai Anduezak (Azkoitia, 1973) duela urtebete hartu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako diputatu kargua. Ordutik, gertutik ezagutu ditu lurraldeko ehun ekonomikoaren eta industrialaren erronkak zein aukerak. Gipuzkoako eta bereziki Urola Kostako ekonomiaren egoeraz, eskualdearen indargunez eta etorkizuneko erronkez aritu da.



Zer egoera bizi du Gipuzkoako ekonomiak? Zein dira indarguneak eta zein kezka nagusiak?

Gipuzkoako ekonomiak une konplexu baina sendoa bizi duela esango nuke. Askotan hitz egiten dugu koiuntura ekonomikoaz, baina gaur egun, koiunturaz baino etengabeko olatuen aroari buruz hitz egin beharko genuke. Nazioarteko ziurgabetasuna, gatazka geopolitikoak, energia kostuen gorabeherak edo eraldaketa digitala bezalako erronkek baldintzatu egiten dute enpresen egunerokoa. Hala ere, oinarri sendoa izatea da Gipuzkoako indargune nagusia, eta sendotasun horrek bere horretan jarraitzen du. Gipuzkoak industria lehiakorra eta espezializatua du, kalitatezko produktuak eta zerbitzuak eskaintzen ditu, eta, batez ere, egoera berrietara egokitzeko gaitasun handia duten enpresariak eta profesionalak. Orain arte bezala, espezializazioa, berrikuntza eta gure balio diferentziala indartzen jarraitu behar dugu, olatu horiei lehiakortasunez aurre egiteko. Laburbilduz, ziurgabetasuna errealitatea den arren, konfiantzarako arrazoi sendoak ere badaude; Gipuzkoak gaitasuna du etortzen diren erronkei aurre egiteko eta aukera berriak sortzen jarraitzeko.

Industria eta ETE sare sendoa izan ditu historikoki Gipuzkoak. Gaur egungo nazioarteko lehiaren testuinguruan, zer behar dute lurraldeko enpresek lehiakor izaten jarraitzeko?

Gipuzkoako industria eta ETE sare sendoa dira lehiakortasunaren oinarri nagusia. Nazioarteko lehia gero eta zorrotzagoa den honetan, ezinbestekoa da enpresek beren balio diferentziala indartzen jarraitzea, espezializazioan, berrikuntzan eta kalitatean sakonduz eta etengabeko egokitzapenerako gaitasuna sendotuz. Merkatuen ziurgabetasuna, teknologiaren eraldaketa eta talentuaren erronka bezalako faktoreen aurrean, funtsezkoa izango da teknologian, prestakuntzan eta pertsonetan inbertitzen jarraitzea. Testuinguru ekonomiko ezezagokorra aldatzea ez dago gure esku, baina bai enpresei behar duten babesa ematea: elkarlenerako sare sendoa eratzea eta gertuko administrazioak laguntza eskaintzea. Horixe da Gipuzkoako Foru Aldundiaren konpromisoa. Argi dugu gure egitekoa, bereziki, enpresa txikien eta ertainen lehiakortasuna babestea eta indartzea dela. Horregatik, aurten 32 milioi euroko laguntza programa jarri dugu martxan, lurraldeko enpresa sarearen eraldaketa eta sendotzea sustatzeko. Izan ere, 2025ean emandako laguntzen %90 ETEei zuzendu zitzaizkien, haiek direlako gure ekonomia-aren benetako bizkarrezurra.

Gero eta gehiago aipatzen dira talentu falta eta belaunaldien arteko erreleboa. Gipuzkoako enpresentzat arazo estruktural bihurtzen ari al dira horiek?

Argi dago talentuaren falta eta belaunaldien arteko erreleboa direla gaur egun Gipuzkoako

enpresek dituzten erronka estrategiko nagusietako bi. Gaur egungo lehiakortasuna gero eta gehiago da pertsonen gaitasunen, ezagutzaren eta konpromisoaren araberakoa. Horregatik, erronka ez da soilik talentua sortzea edo erakartzea; talentua bertan atxikitzea eta lan inguruneak belaunaldi berrien beharretara eta itxaropentara egokitzea ere bada. Azken finean, pertsonak dira gure enpresen aktiborik balioetsuena, eta ezinbestekoa da horiek zaintzea eta etorkizunerako prestatzea. Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiak hainbat programa jarri ditu martxan: Talentua Ernatu (650.000 euro) eta Pertsonen Enpresa Kultura (700.000 euro) programak, talentua garatzeko eta enpresetan txertatzea sustatzeko; eta, aldi berean, belaunaldien erreleboa eta enpresen jarraipena bermatzeko Jarraipena izeneko 700.000 euroko laguntza lerroa. Dena den, diru laguntzez haratago, tokian tokirako erantzunak eta ikuspegi berriak behar ditugu. Horregatik, lurraldeko garapen agentziekin batera proiektu pilotuak bultzatzen ari gara, talentua atxikitzeko estrategia berriak garatzeko.

Bizimodua Gipuzkoan finkatzeko zailtasun gisa etxebizitza, soldatak edo egonkortasun falta aipatzen dituzte gazte askok. Horrek arriskuan jar al dezake ekonomiaren etorkizuna?

Erronka handia da, eta etorkizun ekonomikoarekin zuzenean lotuta dago. Gazteek Gipuzkoan

bizitzeko eta beren bizi proiektua garatzeko zailtasunak baldin badituzte, talentua galtzeko arriskua hor dago. Horregatik, Gipuzkoak erakargarria izan behar du, bereziki, gazteentzat: lurraldean geratzeko eta bertan etorkizuna eraikitzeko benetako aukerak eskaini behar dizkiegu. Horretarako, funtsezkoa da balio handiko eta kalitatezko enplegua sortzea, eta bide horretan, rol erabakigarria izango du bultzatzen ari garen proiektu estrategikoek: mugikortasun jasangarria eta adimenduna, biozientziak, teknologia kuantikoak edo industria tradizionalaren digitalizazioa gisako sektoreek aukera berriak sortzen dituzte. Gainera, sektore estrategiko horien garapenak ez du proiektu zehatzetan bakarrik eragiten; izan ere, balio kate osoan sortzen ditu kalitatezko enplegua eta aukera berriak. Horrez gain, ekin-tzaitzaren aldeko apustu sendoa ari gara egiten, gazteei beren ideiak eta proiektuak Gipuzkoan bertan garatzeko bideak eskainiz. Azken batean, etorkizuneko ekonomia eraikitzea da helburua: gazteek hemen bizitzeko, lan egiteko eta etorkizuna irudikatzen moduko lurralde bat izatea.

Zer pisu eta garrantzi estrategiko du Urola Kostak Gipuzkoako ekonomian?

Urola Kostak pisu estrategikoa du Gipuzkoako ekonomian, bereziki, enpresa egituragatik eta tokiko merkataritzaren indarragatik. Badakigu eskualdeko enpresen %90a ETEak, mikroenpresak eta autonomoak



"Aurten 32 milioi euroko laguntza programa jarri dugu martxan, gure enpresa sarearen eraldaketa eta sendotzea sustatzeko"

direla, eta horregatik, haien lehiakortasuna babesteak du lehentasuna guretzat. Izan ere, haien dira eskualdeko ekonomia benetako motorra; enplegua sortzen dute eta lurraldeari dinamismoa ematen diote. Testuinguru horretan, bereziki azpimarratu nahi dugu tokiko merkataritzaren garrantzi estrategikoa. Merkataritza txikiak ez ditu soilik jarduera ekonomikoa eta enplegua sortzen; gure herriei eta auzoei bizitza ematen die, komunitatea kohesionatzen du, eta funtsezko pieza da tokiko ehun ekonomikoa eta soziala artikulatzeko. Gizarte gisa, balio hori aitortu behar diogu tokiko merkataritzari, horretaz kontziente izan behar dugu. Badakigu, gainera, eguneroko 'pertsiana igotze' horren atzean erroka handiak daudela: kontsumo ohituren aldaketa, digitalizazioaren beharra, eraldaketa prozesu azkarrak nahiz gero eta globalagoa den lehia. Gi-

puzkoako Foru Aldundiak ger-tutik jarraitzen ditu aldaketa horiek, eta benetan baloratzen dugu sektorea egokitzeko eta aurrera egiteko egiten ari den ahalegina.

Urola Kostako herrietara begira, zein dira Gipuzkoako Aldundiak martxan dituen edo martxan jartzea aurreikusten duen proiektu estrategiko nagusiak?

Urola Kostako herriek tokiko beharrei eta eskualdearen garapenari erantzuteko lau lanildo nagusi zehaztuta dituzte plan estrategikoan. Foru Aldundiak bat egiten du lehentasun horiekin; izan ere, horiek erabat uztartzen dira Gipuzkoako Aldundia, garapen agentziekin elkarlanean, lurraldearen lehiakortasuna sustatzeko bultzatzen ari den jardun ildoekin. Lehengo digitalizazioa da, gaur egun enpresen eraldaketarako funtsezko tresna: negozioen kudeaketa eraldatzen du, lehiakortasuna hobetzeko aukera berriak irekitzen ditu, aldaketara egokitzeko gaitasuna handitzen eta balio erantsi berriak sortzen laguntzen du. Bigarren ardatza eraldaketa soziodemografikoa da, bereziki biztanleriaren zahartzeak gure gizartean eta ekonomian izango duen eraginari lotuta. Erronka handia da, eta horri aurrea hartzea ezinbestekoa izango da lurraldearen ongizatea eta lehiakortasuna bermatzeko. Hirugarrenik, garapen jasangarriko eredu ekonomikoa eta soziala sustatzen ari gara, hazkunde ekonomikoa eta ingurumenarrikiko zein gizarte-erikiko eran-

tzukizuna uztartuko dituen ikuspegitik. Bestalde, eskualde bakoitzaren tokiko izaerari eta baliabide endogenoei balioa ematen dieten proiektuak bul-tzatzen ditugu. Urola Kostaren kasuan, ekonomia urdina, sek-tore tradizionalen eraldaketa eta turismo jasagarria gisako arlo estrategikoetan aukera berriak garatzea esan nahi du horrek. Azken batean, helburua argia da: Urola Kostaren indar-guneak baliatuz, eskualde lehiakorra, jasagarriagoa eta etorkizuneko erronketarako prestatuagoa eraikitzea.

Digitalizazioa, adimen artifi-ziala eta ekonomia berdea aukera handizat hartzen dira aspalditxon. Gipuzkoako en-presa txikiak eta ertainak prest ikusten al dituzu trantsizio horretarako?

Digitalizazioa, adimen artifiziala eta ekonomia berdea aukera handiak dira Gipuzkoako enpre-sentzat, baina, batez ere, horiek ezinbesteko trantsizioa dira etor-kizuneko lehiakortasuna bermatzeko. Egia da ETEen artean egoera oso desberdinak dau-dela: batzuk eraldaketa prozesu horietan aurreratuta daude, eta beste batzuk, lehen urratsak ematen hasi dira. Dena den, argi dago bide hori guztiek egin beharko dutela, lehenago edo beranduago. Gure helburua da trantsizio horiek modu eragin-korrean eta errealtate bakoitzera egokituta txertatzea Gipuzkoako industria sarean, bereziki enpresa txikietan eta ertainetan. Horretarako, hainbat programa eta tresna jarri ditugu martxan, hala nola ETEen berrikuntza

teknologikoa eta gaitasun digi-tala indartzeko BeTEK, tekno-logia kuantikoek eskaintzen dituzten aukerak gure enpresa sarera hurbiltzeko Gipuzkoa Quantum edota ETEek efizien-zia handiagoa duten ekipamen-duetan inbertitzeko Enpresak Berritzen: Ekonomia Berdea. Azken batean, trantsizioa ez da aukera huts bat, behar strate-giko bat baizik, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren konpromisoa argia da: enpresei aldaketa horiei arrakastaz aurre egiten la-guntzea, lehiakorra, berri-tzaileagoak eta etorkizuneko prestatuagoak izan daitezten.

Gaur egungo egoera geopo-litikoak –AEBen politika eko-nomikoak, Iranen inguruko tentsioak edo Israelgo gataz-kak– kezkatzen al zaitu? Zer eragin izan dezake horrek Gipuzkoako ekonomian eta enpresetan?

Zalantzarik gabe, testuinguru geopolitikoa kezagarria da, eta arreta handiz ari gara jarraitzen. AEBetako politika ekonomikoek, Ekialde Hurbi-leko tentsioek edo gatazka militarrek nazioarteko merka-tuetan ziurgabetasuna handitu egiten dute, eta horrek zuzenean eragiten die esportazioetan oinarritutako ekonomiei, hala nola Gipuzkoakoari. Eragin nagusia ez da soilik zuzeneko, baita zeharkakoa ere: energia kostuen gorabeherak, horni-dura kateen eten posibleak edo finantza merkatuetako ezegonkortasuna lurraldeko enpresen eguneroko jardue-rara iritsi egiten dira, nahiz eta gatazka horiek urrun gertatu.

Hala ere, Gipuzkoako enpresek ingurune aldakorretara egokitzeko esperientzia eta gaitasun handia dute. Gure industria sendoa, dibertsifikatua eta nazioartekotua izateak erresilien-zia ematen digu. Horregatik, ziurgabetasunaren aurrean, argia da gure estrategia: lehiakortasuna indartzea, merkatuak dibertsifikatzea eta balio erantsi handiko sektoreetan posizioztatzen jarraitzea.


Nolako Gipuzkoa irudikatzen duzu hamar urte barru eta zer rol izan beharko luke Urola Kostak etorkizun horretan?

Hamar urte barrurako, Gipuzkoa lehiakorra, berritzailea eta kohesionatua irudikatzen dut, kalitatezko enpleguan eta balio erantsi handiko ekonomian oinarritua. Industria sendoa mantenduko duen lurraldea, baina aldi berean, digitaliza-zioan, ekonomia berdean eta ezagutzen gehiago sakonduta etorkizuneko erronkei erantzuteko gaitasuna izango duena. Garrantzitsua izango da, hala-ber, lurralde orekatua izatea; hau da, herri eta eskualde guztiek garapen aukerak izatea eta talentua bertan errotzea. Tes-tuinguru horretan, Urola Kostak rol garrantzitsua izan behar du: industria sareari eta ekintzai-letza gaitasunari eutsi behar die, baina berrikuntzan eta trantsizio ekonomikoan pauso sendoak eman ere bai. Eskual-deak baditu indarra, gertuta-suna zein enpresa txikien eta ertainen sarea, eta horiek fun-tsezkoak izango dira Gipuzkoa osoaren garapen orekatua bermatzeko. ■

aterpe

Merkatarien, ostalarien,
gremioen eta profesionalen
erakusleiho digitala

Babeslea:



TOKIKO MERKATARITZAREN ATERPE DIGITALA

Aterpe proiektuak tokiko merkataritzaren digitalizazioa bultzatu nahi du, baina kalea eta denda fisikoak hutsik utzi gabe. Helburua da tokiko negozioek Interneten presentzia izatea eta bezeroengana iristeko bide berri bat edukitzea.

Azken urteetan errotik aldatu dira kontsumitze-ko moduak. Gaur egun, gero eta ohikoagoa da erosketak egin aurretik Interneten informazioa bilatzea, produktuak alderatzea edo establezimenduen berri sareen bidez jasotzea. Aldaketa horrek erronka berriak ekarri dizkie tokiko merkatariei, batez ere digitalizazioaren erritmoari jarraitzea zaila egiten zaien negozio txikiei. Testuinguru horretan sortu du GUKAk Aterpe proiektua, Laboral Kutxarekin elkarlanean.

Aterpek zero kilometro filosofiaren alde egiten du. Helburua da bertako produktuak, zerbitzuak

eta negozioak sustatzea, hurbiltasuna eta tokikotasuna ardatz hartuta. Izan ere, proiektuaren arduradunek azpimarratu dute ez dela *on line* denda, bezeroa eta merkataria elkartzeko erakusleiho digitala baizik: "Tokiko hedabideek eta tokiko negozioek elkarrekin lan egin dezakete komunitatea indartzeko eta bertakoaren aldeko hautua sustatzeko. Informazioa, komunikazioa eta herriko establezimenduak sare berean lotzen ditu Aterpek, ostalarien eta gremioen beharrak eta nahiak zainduz, haien digitalizazioaren erronkei erantzuteko. Horregatik,

proiektua ez da soilik tresna teknologiko bat; tokiko ekonomiaren aldeko apustu estrategikoa ere bada".

Kaleari begira

Aterperen filosofia erraza da: erabiltzaileak Interneten informazioa ikustea, eskaera edo kontsulta egitea eta erosketa establezimenduan bertan gauzatzea. Hau da, plataformak merkatarien eta bezeroen arteko lehen harremana errazten du, baina salerosketaren muina tokiko negozioetan mantentzen da.

Proiektuaren sustatzaileen arabera, helburua ez da kaleak hustea edo erosketak erabat digitalizatzea. Kontrakoa da asmoa: kale biziak, dendaz betetako herriak eta tokiko ekonomia indartsua sustatzea. Horretarako, GUKAren erabiltzaileak bertako establezimenduetara bideratu nahi dira, informazioaren eta merkataritzaren arteko zirkulua osatuz.

Aterpe "alde biko erakusleho digital" gisa definitu du GUKAK. Alde batetik, merkatariek beren produktuak, zerbitzuak edo eskaintzak erakusten dituzte; eta bestetik, kontsumitzaileek informazio hori modu errazean eskuratu dezakete eta zuzenean harremanetan jar daitezke establezimenduekin.


Aukera berriak

Aterpek hainbat abantaila eskaintzen dizkie tokiko establezimenduei. Lehenik eta behin, *on line* presentzia izatea edo presentzia hori handitzea ahalbidetzen die. Webgune propiorik ez duten enpresei oinarritzko informazioa modu profesionalean zabaltzeko aukera eskaintzen die tresnak. Gainera, merkatariek beren produktuen edo zerbitzuen inguruko informazioa argitaratu dezakete Aterpen, baita eskaintza bereziak argitaratu edo kanpaina jakinetan parte hartu ere.

Bezeroen eta merkatarien arteko komunikazioa ere errazten du egitasmoak. Izan ere, erabiltzaileek telefono bidez, Whatsapp bidez edo posta elektronikoen bidez egin ditzakete kontsultak eta erreserbak, bitartekaririk gabe. Horrek harreman zuzenagoa eta pertsonalizatuagoa izatea ahalbidetzen du, tokiko merkataritzaren ezaugarri nagusietako bat indartuz. ■



75€ aurreko truke!
ADI OPTIKA ETA AUDIO ZENTROA (Azpettia)
Mr.Boho, estiloa eta babesa



Hair Spa esperientzia
NAMASTE ILE APAINDEGI ORGANIKOA (Azkoitia)
Natura eta zainitza bat eginda, zuz...



2x1 lente guztietan
INAR OPTIKA (Azpettia)
2x1 lente guztietan, progresiboeta...



Koadrilentzat menu bereziak
TALAIJA (ZUMAIA)



Gosariak
TALAIJA (ZUMAIA)



Enkargatu oilasko erreak
LUKAS ARDOTEGIA (ZARAULTZ)



Eguneko menua
BATELA PREST (ZARAULTZ)



Egin salto ATERPEra

NOLAKOA DA EGOERA ESKUALDEAN?



Orkestra lehiakortasunerako euskal institutuaren ikerketa baten datuetan oinarrituta, Urola Kostako eta Urola Erdiko ekonomiaren erradiografia egin du Gukak, baita eskualdearen indarguneak eta erronkak aztertu ere. Era berean, 'ezkutuko txapeldun'-en zerrendan eskualdeko bi enpresa daudela aurreratu du Orkestrak.

Ekonomia askotan hartzen da zenbaki handien, grafikoen eta adituen hizkuntzaren eremutat. Barne Produktu Gordinaren bilakaera, inflazioaren gorabeherak, esportazioen datuak edo enpleguaren estatistikak dira maiz ekonomiaren osasuna neurtzeko erabiltzen diren adierazleak. Baina ekonomia, azken batean, eguneroko errealitatea ere bada: enpresa batek langile gehiago kontratatzen dituen ala ez, familia batek bere eros ahalmena mantentzen al duen, gazteek lana aurkitzen ote duten edo herri batek jarduera ekonomikoa erakartzeko gaitasunik ba al duen.

Horregatik, lurralde baten egoera ekonomikoa aztertzea

ez da erraza. Ez dago dena azaltzeko gai den adierazle bakar bat. Hazkunde ekonomikoa egon daiteke, baina aldi berean, erronka demografikoak ere bai; enpleguaren bueltako datuak onak izan daitezke, baina produktibitate arazoak izan ditzakete lantegiek; edo industria sare sendoa eduki dezake lurralde batek, baina belaunaldi erreleboari lotutako zalantzak ere bai. Ekonomia argazki konplexua da, eta haren indarguneak zein ahulguneak ulertzeko ikuspegi zabala behar da.

Gainera, lurraldeen arteko konparaketek erakusten dute errealitate ekonomikoak datu orokorren atzean ezkutatuta

geratzen direla askotan. Euskal Autonomia Erkidegoko edo Gipuzkoako datuek joera nagusiak erakusten baldin badituzte ere, eskualde bakoitzak bere ezaugarriak, espezializazioak eta erronkak ditu. Horregatik da interesgarria fokua gertuko errealitate bideratzea eta inguruko jarduera ekonomikoari erreparatzea.

Testuinguru horretan, Orkestra lehiakortasunerako euskal institutuak egindako ikerketaren bidez, Urola Kostako eta Urola Erdiko errealitate ekonomikoari begira jartzeko aukera izan du Gukak, Mikel Gaztañaga erakunde horretako ikerlari zumaiarraren laguntzarekin.

ONGIZATEA ETA GIZARTEA

1 LANGABEZIA TASA



UROLA KOSTA

%4,4

UROLA ERDIA

%5,9

GIPUZKOA

%6,6

2 GOI MAILAKO BIGARREN ETA HIRUGARREN MAILAKO HEZKUNTZA



25 eta 65 urte bitarteko herritarrek dituzten ikasketak aztertzen dira (batxilergoa, erdi eta goi mailako graduak, unibertsitate ikasketak). "Tasa altua izanez gero, positibotzat jotzen da, eta era berean, ehun produktiboa nolakoa den ulertzeko ere balio du datu horrek. Izan ere, lurraldeak eskaintzen duen lanak eta biztanleriaren ikasketek bat egin behar dute, hau da, enpresa txiki sare indartsua baldin badu lurraldeak, baina filosofia edota zientzia politikoen ikasketak gailentzen baldin badira, herritarrek kanpora joan behar dute lanera".

UROLA KOSTA **%81,5**

UROLA ERDIA **%79,1**

GIPUZKOA **%80,5**

3 ATZERRIAN JAIOTAKO BIZTANLERIA



Datu esanguratsua da atzerritarren tasa, etorkizuneko ekonomia ereduari eta lehiakortasunari eragingo dielako. Urola Kosta da Gipuzkoan tasa txikiena duen eskualdea, herri 'garestiak' daudelako bertan. Urola Erdian ere nahiko baxua da tasa. Gipuzkoako edo Goierriko datuarekin alderatuz gero, garbi ikusten da Urolakoak tasa baxuak direla. Dena den, joera garbia da: hurrengo hamarkadan gora egingo dute horiek -%20ra iritsiko dira-. Ondorioz, horrek erronka berriak sortuko ditu hezkuntzan, industrian, gizarteratzean...

UROLA KOSTA
%10,6

UROLA ERDIA
%12,8

GIPUZKOA
%13,8

GOIERRI
%15,8

ESPAINIA
%19,3

ALEMANIA
%20,5

4 ZAHARTZE TASA



Populazioaren %20ak baino gehiagok 65 urte baino gehiago baldin baditu, oso zahartzat hartzen da gizartea; *super-aged society* gisa ezagutzen da hori. Alemaniak eta Hego-Koreak, adibidez, %20tik gorako tasa dute, eta Japoniak, berriz, %30ekoa. Zer esan nahi du zahartzeak? Langileak falta izatea, adineko lantaldea izatea, belaunaldien arteko erreleboa falta izatea... Gizartean ere izango du eragina, gaztetasuna berrikuntzarekin oso lotuta dagoelako, eta beraz, gizartea zenbat eta zaharrago are kontserbadoreago bihurtzen delako.

UROLA KOSTA **%22,0**

UROLA ERDIA **%21,5**

GIPUZKOA **%24,2**

EKONOMIA ETA ENPRESAK

1 BIZTANLEKO BARNE PRODUKTU GORDINA



Biztanleko Barne Produktu Gordina kalkulatzeko, lurralde batean urtebetean sortutako aberastasuna biztanle kopuruarekin zatitzen da. Urola Erdiko datuak begiratuta, argi ikusten da eskualdeak enpresa sare eta aktibitate ekonomiko indartsua dituela.

UROLA KOSTA	38.760
UROLA ERDIA	46.439
GIPUZKOA	48.841

2 INDUSTRIA ENPLEGUA



Herralde bakoitzean industriaren arloan zenbat lagunek lan egiten duten aztertuta, ikaragarriak dira Urola Erdiko datuak: eskualde oso industrialia da.

UROLA KOSTA	UROLA ERDIA	GIPUZKOA	EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA
%25,2	%42,2	%23,1	%19,2

3 NEKAZARITZA ETA ARRANTZA



Eskualdeko datuak altuak dira: nekazaritzak, arrantzak eta txakolinaren sektoreak indarra dute Urola Kostan.

UROLA KOSTA	UROLA ERDIA	GIPUZKOA	EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA
%3,3	%2,1	%0,8	%1,0

4 IKERKETA ETA GARAPENA



Desberdinak dira Urola Kostan eta Urola Erdian I+G egiten duten enpresen kopuruak. Ikerketan eta garapenean aritzeak eragin ugari ditu enpresetan; adibidez, balio erantsia ematen die horrek produktuei edo zerbitzuei, enpresetan ikerketara bideratutako ingeniariak izaten dira... Eskualdean I+G egiten duten zenbat eta enpresa gehiago izan, eskualdea are intentsiboagoa izango da teknologiaren arloan.

UROLA KOSTA	%23
UROLA ERDIA	%43

I+G egiten duten establezimenduak, ehunekoetan (mila biztanleko). Kuantitatiboki ez ezik, kualitatiboki ere neurtzen da I+G, eta ikus daiteke Urola Erdiak Urola Kostak baino gehiago inbertitzen duela I+Gean.

UROLA KOSTA	UROLA ERDIA	GIPUZKOA	EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA
%0,5	%1,3	%0,9	%0,7



ESKUALDEKO BI ENPRESA, ORKESTRA INSTITUTUAREN 'EZKUTUKO TXAPELDUN'

Ekonomia arloan *ezkutuko txapeldun* diren enpresak aurkitu ditu Orkestrak, hau da, sektore oso espezializatueta liderrak diren baina ikusgarritasun txikia duten enpresak. Orotara, hala-ko 53 enpresa aurkitu ditu Orkestrak Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, eta tartean daude Azkoitiko Ibarmia eta Aizarna-zabalgo Wavegarden.

Hala azaldu du zer diren enpresa horiek Gaztañagak: "Ezkutuko txapeldunak nazioarteko nitxoetako edo sektore oso espezializatueta liderrak dira. Nazioarteko merkatuetan lider diren arren, askotan publiko zabalaren artean ezezagunak diren enpresak dira, berrikuntzan, espezializazioan eta esportazio gaitasunean oinarritutako arrakasta eredu eraiki dutenak. Industria sare sendo baten adierazle dira, eta lurralde baten lehiakortasuna ulertzeko giltzarri ere bai". Orkestrak esan duenez, *ezkutuko txapeldun* horien ezaugarri bat nazioarteratze maila handia izaten da. Izan ere, %90ek Europan jarduten dute, %82k Ipar Ame-

rikan eta %72,5ek Asian. Tainari dagokionez, 53 enpresa horietako 21ek 10 eta 50 milioi euro artean fakturatu dituzte, eta beste hamaseik, 50 eta 200 milioi euro artean.

Erronkak

Enpresa horiek askotariko sektoreetan aritzen dira, eta beraz, erronka oso desberdinak dituzte. Enpresa gehienak makina erremintan, fabrikazio aurreratuan eta automozioan daude espezializatueta, eta horien mehatxu nagusia Txina da: "Txina merkatu garrantzitsua izan da Europako industriarentzat; izan ere, gure industriako zerbait Alemaniara salduz gero, Txinara heltzen zen ondoren. Azken hamarkadan, ordea, Txinak ikaragarriko aurrerapena egin du automozioan, aeronautikan, automatizazioan... eta, beraz, [makina erremintako, fabrikazio aurreratuko eta automozio] enpresa multzo bat arriskuan dago.

Gizartearen egoerak horretan eragina izan duela azaldu du Gaztañagak: "Gure enpresak

txikiak eta ertainak dira, eta esportazioen bitartez saltzen dituzte produktuak. Modu ekonomikoan egiten da esportazio kontainerren bidez, baina gaur egungo herrialdeen arteko tentsioek eta gudek muga zergak, eta beraz, kontainerren prezioak igoarazi dituzte. Ondorioz, kanpoan saltzen jarraitu nahi baldin badute, nazioartean presentzia nola mantendu behar duten aztertu beharra daukate".

Gainera, zahartzen ari den gizarteak erronka berriak sortuko dituela aurreikusten du Gaztañagak: "Lantokietako plantillak zahartzen ari dira, eta errelebo falta nabaria da; sektore eta arlo guztietan falta da jendea. Horrez gain, ez du laguntzen formazio eta enpresa sarearen artean egoten den desorekak; izan ere, oso garrantzitsua da hezkuntza sarea eta lan sarea bide berean joatea. Dena den, esan beharra dago erdi eta goi mailako eskaintza eta sare oso onak ditugula eskualdean eta lurraldean".

UROLA KOSTA ENPLEGU ETA TOKIKO GARAPEN PLANA EGITEKO PROZESUAN MURGILDUTA DAGO

Urola Kostan Enplegu eta Tokiko Garapen Plana (ETGP) lantzeko prozesua jarri dute martxan, bertako eragile sozioekonomikoen partaidetzarekin eta elkar sortze prozesuan oinarrituta. Planaren helburua da eskualdeko enplegua eta tokiko garapena modu jasangarrian, lehiakorrean eta inklusiboan indartzea, lurraldeko eragileen arteko lankidetzeta eta gobernantza partekatua ardatz hartuta.

ETGPak eskualdearen etorkizun ekonomikoari eta sozialari ikuspegi integratutik erantzun nahi dio, tokiko erronkak eta aukerak identifikatuz eta datozen urteetarako jarduera ildo estrategikoak definituz. Planaren lanketa Euskal Enpleguari buruzko 15/2023 Legearen esparruan kokatzen da, tokiko beharretara egokitutako enplegu eta prestakuntza politikak sustatzeko helburuarekin.

Planaren helburu estrategikoen artean daude tokiko ehun ekonomikoa indartzea eta dibertsifikatzea, ekintzailatza sustatzea, berrikuntza eta digitalizazioa bultzatzea, aukera berdintasuna eta inklusioa sustatzea, lurraldearen erakargarritasuna handitzea eta ekonomia urdinarekin lotutako



aukerak garatzea, besteak beste.

Prozesuaren ezaugarri nagusietako bat parte hartzea ardatz duen gobernantza eredua da. Hori oinarri, hainbat koordinazio eta kontraste espazio antolatu dira: mahai politiko-instituzionala, mahai tekniko iraunkorra, lan mahai tematikoak

Eskualdeak indargune nabarmenak ditu, hala nola langabezia tasa apala, ekonomia dibertsifikatua, enpresa sare zabala eta giza kapital kualifikatua

eta eragile sozioekonomikoen parte hartze foroa.

KOORDINAZIO PARTEKATUA

Urola Kostako Udal Elkarteak lidergo eta koordinazio tekniko-operatiboa hartu du bere gain, informazioa zentralizatzeko, lan dinamika antolatzeko, eragileen arteko lotura egiteko eta jarduera ildoan jarraipena eta ebaluazioa koordinatzeko.

Horrez gain, mahai politiko-instituzionala eratu da Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaiako udal ordezkari politikoekin. Mahai horrek planaren norabide estrategikoa lantzea, lehenetsun po-

litikoak baliozkotzea eta udalerrien ikuspegia bermatzea izango du eginkizun.

Horrez gain, eragile sozioekonomikoekin hainbat *workshop* eta lan saiogauzaten ari dira erronkak, lehentasunak eta ekintza planaren proposamenak partekatzeko eta kontrastatzeko.

Herritarren parte hartzea ere prozesuaren funtsezko elementuetako bat da. Diagnostikoaren kontrastea egiteko eskualdeko herrietan, webgune eta sare sozialen bidez ekarpenak egiteko espazioak aktibatu dira, eta ekintza planaren definizioan ere ahotza izateko aukera izan dute eta izango dute herritarrek.

Diagnostikoa ikuspegi kuantitatibotik eta kualitatibotik landu da, hainbat datu iturriren eta parte hartze tresnen bidez. Prozesuan hainbat iturrietako informazioa aztertu, eta galde-gegiak, elkarrizketak eta *workshop*-ak egin dira herritarren, eragile sozioekonomikoen eta udal ordezkarien ekarpenak jasotzeko.

Eskualde honek indargune nabarmenak ditu, hala nola langabezia tasa apala, ekonomia dibertsifikatua, enpresa sare zabala eta giza kapital kualifikatua. Gainera, bizi kalitate eta erakargarritasun handiko lurraldea da.

Datozen hilabeteetan parte hartze prozesuak fase berri bati emango dio hasiera, herritarrei, enpresei eta eragileei eskualdearen etorkizuneko lan ildo estrategikoen definizioan parte hartzeko gonbidapena eginez. Horretarako, kontraste saioak, foro irekiak eta ekarpenak egiteko kanal digitalak aktibatuko dira.

ETGPa aukera estrategikoa izango da eskualdearen erronka nagusiei modu koordinatuan erantzuteko eta garapen ekonomikorako eta sozialerako ikuspegi partekatu bat eraikitzeko, *Urola Kosta batera lanean* lelopean. ■



ION AROZENA
UKUEko lehendakaria

GUREAN ERE BADAGO B ALDEA...

Lurraldeko zenbakiak egoera oso onean kokatzen dute gure eskualdea. Zenbaki horiek hainbat datu hartzen dituzte kontuan: errenta pertsonala, langabezia, ikasketa maila... Baina jakin badakigu oinarrizkoak diren zenbait lanposturen egoera eta lanpostu horiek betetzen dituzten pertsonen baldintzak ezegonkorak direla, eta gainera, gehienbat emakumei eragiten dietela. Egiten ari garen lanaren helburua hori guztia duintzea eta profesionalizatzea da; baldintzetan hobekuntzak lortzea izan beharko luke gizartearen helburu.

Gainera, gure eskualdean goi mailako prestakuntza duten pertsona ugari daude, baina gazte eta profesional askok kanpora jo behar izaten dute beren prestakuntzari eta kualifikazioari egokitutako lana aurkitzeko. Horregatik, beharrezkoa da kalitatezko enplegua sortzea eta bertan garatzeko aukerak eskaintzea.

Aldi berean, industriako, lehen sektoreko, zaintzaren eremuko, merkataritzako eta zerbitzuetako lan tradizionalak funtsezko izaten jarraituko dute hemen ere, eta eskualdearen kohesioa eta ongizatea bermatzeko ezinbestekoa da lan horiek duintzea eta horiei duten balioa ematea.

Bestalde, inklusioa eta komunitate sendoagoa eraikitzea lehentasunezko erronkak dira guretzat. Euskara ikastaroek harrera ona izan dute, eta haien bidez, inklusioa eta euskararen sustapena indartzen ari gara.

Horregatik, eskualdearen etorkizunaren oinarri izan behar dute profil profesional eta prestakuntza maila guztietako pertsonen aukerak eskaintzeak, lan tradizionalen eta ofizioen balioa emateak, genero arrakala gainditzeak eta integrazioak zein euskararen sustapena indartzeak. Elkarlanaren eta ikuspegi partekatuen bidez, eskualde sendoago, justuago eta iraunkorago eraikitzeko.



ERREZILDIK MUNDURA: DOMUSA TEKNIKEK MENDE ERDI BETE DU ETXEAK KLIMATIZATZEN

1976an Azpeitian galdara lantegi txiki gisa jaio zena, energia trantsizioaren eta aerotermiaren abangoardian dagoen Errezilgo kooperatiba indartsua da gaur egun. Mende erdiko bidean, argiak izan dira Domusa Tekniken arrakastaren zutabeak: dibertsifikazio teknologikoa, kanpo merkatuetara zabaltzea eta Mondragon Korporazioan integratutako eredu kooperatiboa.

2026. urtea ez da egutegiko beste data bat Domusa Teknikentzat. Errezilgo enpresak urrezko ezteiak ospatzen ditu aurtem: 50 urte egin ditu berrikuntzan, fabrikazioan eta gertutasunean eragiten. Mende erdiko bilakaera hori euskal industria sarearen adibide paradigmaticoa da: nola egokitu mundu mailako aldaketa energetiko eta ekonomikoetara tokiko erroak eta balio sozialak galdu gabe. 50 zenbakia eta urre kolorea txertatuta dituen urteurreneko logotipoak ondo islatzen du heldutasun hori: etorkizuneko

proiektzioa galdu gabe, egonkortasuna lortu duen enpresa baten irudia.

Txikitik egitura kooperatibora (1976-1999)
Enpresaren sorrera 1976an kokatzen da, Teofilo Dominguezek eta Josefina Usabiagak Azpeitian galdarak egiteko proiektu txiki bat abiatu zutenean. Hasiara haietan, berogailuen eta galdaren merkatuan lekua egitea lortu zuen konpainiak, produktuen kalitateari eta eskainta-tako zerbitzuari esker. Alabaina, konpainiaren

historiako bi mugarri iritsi ziren jarraian: lehena, 1989an, ekoizpen gunea Errezilgo San Esteban auzora aldatu zutenean; eta bigarrena, hamar urte geroago, 1999an, enpresa kooperatiba bihurtu eta Mondragon Korporazioan integratu zenean. Urrats hori funtsezkoa izan zen maila ekonomikoan zein sozialean; Errezil bezalako herri txiki batean industria proiektu indartsu bat finkatzeak bultzada itzela eman zion eskualdeko oreka sozioekonomikoari.

Erregai fosiletatik berriztagarrietara

Domusa Tekniken arrakasta ekonomikoaren motorra, zalantzarik gabe, merkatuaren eskariei aurreratzeko gaitasuna izan da. Hasieran egiten zituzten gasolio eta gas galdara konbentzionaletatik trantsizio energetikoak sortutako erronketara eta aukeretara egokitzen jakin du konpainiak. Domusa Teknikek apustu irmoa egin du energia berriztagarrien alde, indarrak pellet galdaretan (biomasa), eta, bereziki, aerotermian jartzeko. Gaur egun, energia trantsizioaren erakusle nagusia bero ponpek osatzen duten katalogo zabala da; aurten, gainera, geotermia ere merkaturatzen hasiko da Domusa Teknik, eskaintza berriztagarria are gehiago indartuz.

Nazioarteko jauzia eta "Guk egina" bermea

Gaur egun, Errezilen diseinatutako eta ekoiztako galdarak eta bero ponpak mundu osora esportatzen dituzte; bereziki Frantzia, Italia eta Portugalen dute presentzia egonkorra. Nazioarteko lehiakortasun hori, ordea, ez dute lortu ekoizpena herrialde merkeagoetara eramanez. Domusaren balio erantsia tokiko ingeniariak eta kalitate kontrola dira. "Gure produktuak etxe bakoitzaren beharretara egokitzen dira, eta moldagarritasun hori Errezilgo lantegitik bertatik kudeatzen da", azaldu dute kooperatibako kideek.

Etorkizuneko erronkak: deskarbonizazioa eta digitalizazioa

Europako Itun Berdeak eta etxebizitzaren deskarbonizazio helburuek erabat baldintzatzen dute sektorearen etorkizuna. Domusa Teknik posizio bikainean dago erronka horri aurre egiteko; izan ere, soluzio teknologiko adimendunekin erabil-



Errezilen diseinatu eta ekoiztako galdarak eta bero-ponpak mundu osora esportatzen dira

tzaileari efizientzia maximoa eskaintzen die, eta, aldi berean, instalatzaileei eguneroko lana nabarmen errazteko erremintak bermatzen dizkie.

Bost hamarkadatan ekonomia errentagarritasunetik haratago doala erakutsi du Domusa Teknikek. Pertsonen gogobetetasunarekin, lanpostu egonkorrekin, profesionalakiko hurbiltasunarekin eta ingurumenarekiko konpromisoarekin Errezildik mundura, hurrengo 50 urteak ere klimatizatze prest. ■

Industria 4.0ak fabrikak digitalizatu zituen; industria 5.0ak, berriz, pertsonak berriz ere erdigunean jarri nahi ditu. Adimen artifiziala, automatizazioa eta robotika gero eta presenteago dauden testuinguruan, jasangarritasuna, erresilientzia eta gizakien ongizatea bihurtu dira industria eredu berriaren ardatz nagusiak. Horri buruz hitz egin du Gukak Miren Illarramendi (Zestoa, 1977) Mondragon Unibertsitateko irakasle eta ikerlariarekin.

"MAKINEK LAGUN DEZAKETE, BAINA PERTSONAK ERE ZAINDU EGIN BEHAR DIRA"

MIREN ILLARRAMENDI

Ingeniaritzan doktorea eta teknologia aurreratuak industria sarean txertatzeko ikertzailea



Nola definituko zenuke industria 5.0?

Industria 4.0ren garapena dela esango nuke, hau da, egin behar zen hurrengo pausoa. Industria 4.0 digitalizazio prozesu bat izan zen, batik bat, gauza zehatzak edota puntualak hobetzeko egindakoa. Industria 5.0k, aldiz, maila orokorreko hobekuntzak bilatzen ditu. Ikuspuntu orokorragoa du, eta gizakiak jartzen ditu erdigunean. Digitalizazioak utzitako testuinguru horretan, jasangarritasuna eta erabakiak hartzeko orokortasuna ditu oinarrian. Lehen gauza zehatzetan lan egiten zen, eta orain, orokorragoetan, gizarteko arazo batzuk eta gizakiak kontutan hartuta egin nahi da lana.

Orokortasuna eta gizakiak aipatu dituzu aro berriaren oina-

rri gisa. Horiek dira industria 4.0ekin alderatuta dituen desberdintasun nagusiak?

Bi horiekin batera, erresilientzia aipatuko nuke. Lehen gauza puntualak hobetzen genekien; orain, testuinguru aldakor batean bizi garenez, eta guztiak eragina izan dezakeenez, enpresek erresiliente eta malgu izan beharra dute. Inguruko baldintzak, gudak, lehengaien eskasia, atzerapenak... askotan espero ez diren momentuetan etortzen dira, eta enpresek azkar aldatu behar izaten dituzte estrategiak. Aldaketa horien aurrean, erresilientzia beharrezkoa da. Moldatzeko gaitasuna izan behar dute enpresek, eta ez enpresa barrura begira bakarrik, kanpo-

ra begira ere beharrezkoa dute erresilientzia.

Adimen artifizialaren eta makinaren garaian gaude, baina pertsona jarriko da industria ereduaren erdigunean. Zergatik gertatuko da aldaketa hori?

Azken hamarkadan, edo agian lehenagotik ere bai, digitalizazioaren ikerketan aurrerapausoak egin dira, eta horiei esker, gauza ugari hobetzea lortu da. Baina pertsonak ez dira testuinguru horretan jarri: robotak jarri ditugu era askotako lanak egiteko, eta automatizazioak izan duen bilakarearen ondorioz, makinak lanegietan txertatu dira, pertsonak alde batera utzita. Ahalegin bat egin behar da hor; izan ere, giza itxurako makinak alboan badituzu, lankide gisa,

GURE HIZKUNTZA GURE INDARRA!

1958tik, zehaztasuna, fidagarritasuna eta konpromisoa dira gure lanaren oinarria.



65+
URTE
ESPERIENTZIA



46
PERTSONA
GURE TALDEA



360°
ZERBITZU
INTEGRALA



ISO 9001
KALITATE
SISTEMA



— 1958tik
alberdi
ALBERDI MEKANIZATU LANAK



Ugarte industrialdea 2-3-4
20720 AZKOITIA



943 852 970



www.alberdimek.eus

beharrezkoa da langile horien ikuspuntua kontuan izatea: humanoidearekin nola harremandu behar duten, zer estres sor diezaioketen horrek... Etikoki ere landu egin behar da hori, giza itxurako makinekin lan egitean, pertsonak eta haien duintasuna babestu eta ziurtatu egin behar ditugu. Humanoideekin lan egitea hotza izan daiteke, baina lanpostu batzuetan, ikaragarri lagun dezakete, eta baita gizakion ongizatea bermatu ere; esaterako, lan fisiko astunak ekidinez, ingurune arriskutsuetan ordezkatzuz eta abar. Horrek guztiak, gainera, langileek baja gutxiago hartzea ekar dezake. Gauza onak badituzte adimen artifizialak eta makinek, baina pertsonak ere zaindu egin

behar dira, eta Europako legedia zentzu horretan bideratu dute.

Etorkizuneko lantegietan gaitasun berriak beharko al dituzte langileek?

Langileek gaitasuna izan beharko dute mundu digitalarekin harremantzeko, edo gutxienez, ulertzeko. Makinek hainbat eratako lanak egingo dituzte, eta operarioek edo langileek jakin beharko dute sistema digital horiek proposatzen dietenaren inguruan erabakiak hartzen. Teknologia ulertzen, teknologiarekin harremantzen eta inguru horretan mugitzen jakin beharko dute. Era berean, horrek guztiak lanpostu mota berriak sortzea ekarriko duela uste dut; adibidez, gailu horientzako sistemak sortzen.

Hor ere badago lana, alegia, sistema digital horiek modu erraz batean martxan jarri, birprogramatu edo konfiguratu ahal izateko sistemak sortzen, adituak ez diren langileentzako ingurune ulergarriak eta errazak sortzen, gero horiek modu intuitiboan, seguruan eta errazean egunero erabili ahal izateko.

Hezkuntza sisteman ere aldaketa ekarriko du horrek?

Noski. Horrek eskatzen duena da lanbide heziketan edota unibertsitatean gradu berriak sortzea edota dauden ikasketen plangintza berriak egitea. Oinarria ikasi beharra dago, baina hortik harago, ondo ikasi behar dute erreminta horiek erabiltzen. Azkenean, aldaketak arlo ugaritan ekarriko ditu.



Ostalaritzarako hornigaiak

sammic.com/eu



Zer harreman dago industria 5.0ren eta jasangarritasunaren artean?

Jasangarritasunaren kasuan, adibidez, industria 4.0ekin alderatuta, ondustria 5.0k badu desberdintasun nagusi bat. Industria 4.0n, produkzio kate bateko puntu edo operazio konkretu batean energia kontsumoa optimizatzea bilatzen zen arren, ez zen kontuan hartzen prozesu osoa. Horrela, puntu zehatz bat optimizatu arren, eragin negatibo bat sor genezakeen prozesu osoan. Industria 5.0n, aldiz, bizi ziklo guztia hartzen da kontuan, eta ekonomia zirkularra sartzen da ekuazioan: lehengaiak nondik datozen, produktuaren bizitza amaitzen denean nola birziklatu daitekeen hori, nola berreskurabili... Ikuspuntu orokorragoa du. Industria 4.0n gehiago bilatzen zen optimizazioa, automatizazioa eta digitalizazioa; orain, aldiz, kate guztia hartzen da kontuan, eta puntu zehatzetan zerbait aldatu behar bada osotasuna hobeto joan dadin, egin egiten da.

Euskal enpresa txikiak eta ertainak prest al daude industria 5.0ra jauzi egiteko ala arrakala handia dago horien eta enpresa handien artean?

Euskal Herrian izugarritzko garrantzia du industria txikiak, izan ere, handiak hornitzen dituzte, eta ezinbestean egon beharra daukate mugimendu

berrian, zer gertatzen ari den jakiteko behintzat. Ahalegin handia egin da industria 4.0ra iristeko, batzuk iritsi dira eta beste batzuk oraindik bidean dira, baina denak ez daude maila edo egoera berean. Ezinezkoa da gainera. Digitalizazioaren arloan, adibidez, pixkanaka-pixkanaka ari dira. Hala ere, esango nuke industria 5.0ra iristeko oraindik falta zaiela; are gehiago, enpresa handiak ere ez dira iritsi oraindik. Baina garrantzitsua iruditzen zait hor egotea, zer gertatzen ari den edo zer etorriko den jakitea, eta salto hori egiteko prestatzen joatea.

Enpresa bakoitzak bere erritmoa eramango duen arren, eraldaketa horretan administrazioen laguntza beharrezkoa izango al dute?

Enpresek derrigorrezkoa izango dute erakundeen eta administrazioen laguntza. Euskal Herria beti izan da herrialde industrial, eta ez badugu galdu nahi orain arte izan dugun lekua galtzea, behar-beharrezkoa da administrazio publikoen aldetik laguntza jasotzea, estrategia finkatzea eta ibilbide bat markatzea. Ahalmen ba-



"Enpresek derrigorrezkoa izango dute erakundeen eta administrazioen laguntza"

dugula uste dut, enpresa asko ditugulako. Badaude programak eta diru laguntzak, bai Eusko Jaurlaritzak ematen dituenak, Europako Batzordeak ematen dituenak zein Espainiako Gobernuak, nahiz eta agian, azken horiek guretzat lortzeko zailagoak izan. Normalean, gainera, Euskal Herriko administrazioak saiatzeko dira Europakoarekin bat egiten eta diru laguntza iturriak sortzen. Askotan, ordea, enpresa txikiak zailtasunak izaten dituzte diru laguntza horietara iristeko, eta bide horretan ere lagundu egin behar izaten zaie: zer diru laguntza diren ondo azaldu, zer behar dituzten argitu... Laguntza eman, laguntzak eskatzeko. Horrek ekarriko du inbertsioak egiteko, langileei formazioa emateko edota gailu berriak erosteko gaitasuna.

Nolakoak izango dira gure inguruko fabrikak hemendik hamar edo hamabost urtera?

Ez dakit, baina gaur egun automatizazio enpresetara joanez gero, leku oso garbiak dira, isilak eta dena sinkronizatuta izaten dute. Hemengo enpresek oraindik ez dute itxura hori, baina joera hori izango dela uste dut. Leku ilunak, grisak, zatarrak, oliotsuak eta zatarratsuak izatetik, ospitale itxura hartzera igaroko dira: garbiak, isilak, makinak eta pertsonak elkarrekin lanean... Baina urte asko beharko dira horretarako. ■

AZKOITIA ETA ZUMARRAGA ARTEKO ERREPIDEA, ETORKIZUNARI BEGIRA

Garraio azpiegiturek garrantzi handia dute eskualdeen garapen ekonomikoan eta sozialean. Horren adibide dira Azkoitia eta Zumarraga arteko errepidean gauzatzen ari diren hobekuntza lanak; izan ere, proiektu horren helburua da bide sarea modernizatzea, segurtasuna handitzea eta enpresen zein herritarren mugikortasuna erraztea.

Azkoitia eta Zumarraga arteko errepidean egiten ari diren hobekuntza lanek aurrerapauso garrantzitsua ekarriko dute Urola Erdiko komunikazioetara, Gipuzkoako Foru Aldundiaren arabera. Azpiegitura modernizatzekeo proiektuaren bidez, eskualdeko mugikortasuna optimizatzea ez ezik, garapen sozio-ekonomikoa sustatzea ere nahi dute, herritarren eta enpresen beharrei erantzun hobe emanaz.

Gainera, Zumarragako ospitalera –eskualdeko erreferentziatzeko zentroa– zuzenean iristeko aukera emango dute GI-631 errepideko lanek, eta irisgarritasunari eta segurtasunari lotutako hobekuntza esanguratsuak sortu ere bai. "Proiektua lurralde orekaren aldeko apustua da, lanei esker Urola Erdia eta Urola Garaia eskualdeek konexioak indartuko dituztelako. Errepide sare eroso, moderno eta segurua izatea funtsezkoa da enpresentzat eta egunero lantokietara joa-



Azkoitia eta Zumarraga arteko errepidean lanak egiten ari diren eremua, airetik ikusita. ALDUNDIA

ten diren langile guztientzat", azaldu du Foru Aldundiko Bide Azpiegiturak eta Lurralde Estrategia departamenduak.

Gaur egungo egoera

2024ko urritik bigarren fasean murgilduta dira lanak; gutxi gorabehera, 1,45 kilometroko zatian ari dira obretan, 22,950 kilometro eta 24,400 kilometro puntuen artean, eta 13,3 milioi euroko aurrekontua dute (BEZ barne). Lanok gauzatzeko hainbat esku hartze egitea aurreikusten dute, bidea egungo beharretara egokitzea izanik helburua. Horri lotuta, Bide Azpiegiturak eta Lurralde Estrategia sailak aurreratu duenez, obrak "erritmo onean doaz aurrera", eta, une honetan, jarduketaren bi heren erabat induskatuta daude. Ereku horretan, ezpondei eusteko eta ingurumena lehengoratzeko lanak amaitzen ari dira, eta dagoeneko drainatze lanak eta firmeak egiten hasi dira. Gainerako zatian, indusketak eta euste lanak egiten jarraitzen dute, eta gero egingo dituzte drainatzeak eta firmeak.

Indusketa lanen garapenean, hasieran aurreikusitakoa baino euste maila handiagoa behar izan dute, eremu horretako harkaitzaren kalitatea dela eta, eta horrek lanak luzatzea eragin du. Halaber, indusketa jardueren barruan, aldizkako leherketak egiten segitzen dute, eta halakorik izaten denetan, sortuko dituen eraginak alde aurretik jakinarazten dituzte horretarako egokitutako kanalen bidez.

Proiektua errepidearen egungo plataforma ahalik eta gehien aprobetxatuz ari dira egiten, eta lanek ez dute Urola ibaiaren ibilguan eraginik izango. Dena den, egin beharreko esku hartzeen artean dago plataformaren handitzea, menditik espazioa irabaziz, hondeaketak eta maldak eginez. Horrez gain, drainatze sistema berrituko dituzte eta babes barandak jarri ere bai. Errei bat gehituta, 13 metroko zabalera izango du Urola ibaiaren eta mendi magalen arteko errepideak. Gainera, martxan den lanen fasean aurreratzeko bi errei eraikiko dituzte: bata, 275 metrokoa, Urretxurantz doana, eta bestea, 475 metrokoa, Azkoitirako norantzan.

Datozen hilabeteetara begira, eta "lanak eta zirkulazioa bateragarri egiteko asmoz", trafikoa

semaforoen bidez kontrolatuko dute, txandakako pasabidea eskainiz, eta egoera jakin batzuetan, errepideko langileek gidatuko dute trafikoa, orain arte egin duten bezala.

Zarauzko saihezbidea, 2027 hasierarako

Gipuzkoako Foru Aldundiak abian du Zarautzen N-634 errepideko trafikoa eta industrialdeetarako sarbideak hobetzeko proiektua. Aldundiaren esanetan, proiektuaren helburuak herrigunetik igarotzen den trafikoaren bolumena murriztea eta bide segurtasuna indartzea dira. Horretarako, saihezbidea eraikitzen ari dira, ibilgailuen zirkulazioaren zati bat herrigunetik kanpora bideratzeko. Era berean, herriko industrialdeetarako sarbideak berrantolatuko dituzte, mugikortasuna errazteko eta trafiko fluxua optimizatzeko.

Lanok tarteko, 1.560 metroko errepide zati berria eraikiko dute, eta hainbat biribilgune egitea ere aurreikusi dute. Aldundiaren arabera, azpiegitura berriek trafikoa arinduko dute, eta zarata nahiz kutsadura mailak murrizten lagundu, herritarren bizi kalitatea hobetuz eta jarduera ekonomikoaren garapena erraztuz. Obra horiek egiteko 18 milioi euroko inbertsioa egingo dute, eta, aurreikuspenen arabera, 2027aren hasieran amaituko dituzte lanak. ■



Zarauzko saihezbideko lanak. ALDUNDIA

IRAURGI BERRITZEN

UROLA ERDIKO INDUSTRIA ENPRESAK AURRERAPAUISOAK EMATEN LEHIAKORTASUN JASANGARRI BATERAKO TRANTSIZIOAN



Begoña Beobide
IB zuzendaria

“Urola Erdiko industria enpresak lehiakortasun jasangarri baterako bidean daude: teknologiko-digitala, soziala eta ingurumenari lotutako berrikuntza proiektu eraldatzaileen bidez lantzen ari dira. IBren Lankidetzazko Gobernantzaren ereduaren baitan, Industria Gunearen espazioa finkatu da, eskualdearen eta industriaren alde lan eginez. 2025ean, eskualdeko industria enpresetara irismena handitu da, eta kanpo eragileekin aliantzak indartu dira, eskualdean inpaktu positiboa eraginez.”

76 ENPRESA DESBERDIN
PARTE HARTZEN



Industria Gunea

Eskualdearekin eta industria enpresen etorkizunarekin konprometitutako lankidetzaren sarea da, industria enpresen 27 enpresa ordezkari kidek osatua. Bere helburua enpresen behar amankomunak identifikatzea eta enpresentzat garatu beharreko proiektu kolektiboaren lehen tasunak erabakitzea da, IBren lankidetzazko gobernantzaren testuinguruan. Eskualdearen garapenarekin duen konpromiso sendoagatik nabarmentzen da, epe luzeko ikuspegia izateagatik, eta enpresen lehiakortasun kolektiboaren alde lan egiteko interesagatik.

2025EKO INPAKTUA

Elkarlanaren bidez, eskualdeko industria ehuna indartzen jarraitu da: trebakuntza lantzaioak, kontraste espazioak eta profil profesionalen araberako lantaldeak, enpresen behar errealek jasotzeko, eta hiru trantsizioetan lehiakortasun proiektu berriak exekutatzeko balio izan du.



Urola Erdiko Industria
Lehiakortasun Jasangarrian Trantsizioen bidean



TRANTSIZIO TEKNOLOGIKO-DIGITALA

UROLA ERDIKO ENPRESETAN ERALDAKETA TEKNOLOGIKO-DIGITALA BULTZATZEN




Iraurgi Berritzenek digitalizazioa eta berrikuntza teknologikoa palanka gisa lantzen ditu eskualdeko enpresen lehiakortasuna indartzeko.

IT eta ekoizpen arduradunen lantaldeetan trebakuntza saioak eta sentsibilizazio jarduerak garatu dira, eta elkarrekin esperientziak partekatu, ikasketa kolektiboa sortuz.

Datuen kudeaketa eta gobernantza, zibersegurtasuna, adimen artifizialaren aukerak eta ekoizpenaren hobekuntza izan dira lan ildo nagusiak.

Proiektu adibideak:

- Digitalizazioa, eraldaketa digitala
- Berrikuntza teknologikoa
- Datuen erabilera kudeaketan
- Zibersegurtasuna enpresetan
- Adimen artifizialaren aukerak



TRANTSIZIO SOZIALA

PERTSONAK, TALENTUA ETA ANTOLAKETA EREDU BERRIAK ERDIGUNEAN



Industriaren etorkizuna ez dago soilik teknologian: pertsonen gaitasunak, lidergoa, talentua, antolaketa berriak eta belaunaldi erreleboa funtsezkoak dira.

Gunera eta profil profesionalen araberako lantaldeak konfiantza eta praktika onen trukea indartzeko espazioak dira.

Pertsonen arduradunen lantaldean erakargarritasuna, garapena eta antolaketa eredu berriak landu dira . Enplegu zerbitzuaren bitartez, enpresen lan eskaintzen eta gazte eta pertsona zaurgarrien programa egokituene kudeaketa indartu da enpresekin lankidetzan.

Proiektu adibideak:

- Talentua erakartzea eta fidelizatzea
- Pertsonen garapena eta prestakuntza
- Lidergo eredu berriak
- Belaunaldi arteko erreleboa
- Lanpostuen eraldaketa



TRANTSIZIO ENERGETIKO-EKOLOGIKOA

JASANGARRITASUNA ETA LEHIAKORTASUNA UZTARTUZ



Energia eraginkortasuna, baliabideen erabilera, hondakinen kudeaketa eta ingurumen aztarnaren murrizketa gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari dira enpresen lehiakortasunean eta etorkizuneko estrategietan.

Iraurgi Berritzenek trantsizio energetiko-ekologikoa eta jasangarritasun estrategikoa ikuspegi praktikotik lantzen ditu: eskualdeko enpresen beharrak identifikatuz, ezagutza teknikoak duten adituekin lan eginez eta gaitasunak indartzeko prestakuntza nahiz tresnak erabiliz.

Proiektu adibideak:

- Ekonomia zirkularra
- Energia eraginkortasuna eta aurrezpena Energia berriztagarriak
- Ingurumen aztarna
- Jasangarritasun estrategikoa



SUSTAPEN EKONOMIKORAKO LAGUNTZAK, BULTZADA BAT HERRIKO EHUN EKONOMIKOARI



ALEX BERASATEGI

Tailer bateko makineria egokitu, denda bateko argiak aldatu, ekintzailtza proiektu bat martxan jartzeko lokala alokatu edo jarduerak hazten jarrai dezan langile gehiago kontratatu. Herriko ehun ekonomikoak aurrera egiteko, era guztietako inbertsioak izaten dira beharrezkoak, eta urtero-urtero, sustapen ekonomikorako laguntzen bidez, horretan laguntzeko ahalegina egiten du Azpeitiko Udalak.

Aurtengo deialdia ere martxan da dagoeneko: urriaren 15era arteko epea izango da eskaerak aurkezteko. 400.000 euroko aurrekontua onartu du Azpeitiko Udalak sustapen ekonomikorako laguntzetarako.

Laguntza horiek lau ildo nagusitan banatzen ditu erakundeak: zerbitzuen eta lehen sektorearen jarduera indartzea; industria proiektu berritzaileak eta estrategikoak (eraikuntza bar-

ne) sustatzea; ekintzailtza bultzatzea; eta zerbitzuetan, ostalaritzan eta industrian enplegua sortzea.

Estimazio handia dute laguntzek. Iazko datuak dira horren adibide: guztira, 137 diru laguntza eskaera jaso zituen udalak, sektore eta tamaina guztietako enpresenak, eta horietatik 122 onartu zituen. Aurrekontuetan 400.000 euroko partida zuen aurreikusita erakundeak laguntza horietarako, baina jasotako eskaerei erantzun ahal izateko, 486.000 euro bideratu zituen.



**Eskaerak
aurkezteko
lotura**



ANDER LARRAÑAGA

**Azpeitiko Udaleko
Ekonomia batzordeburua**

Zer bilakaera izan dute Azpeitiko Udalaren sustapen ekonomikorako laguntzek?

Laguntza horiek 2014. urtean eman genituen lehen aldiz. Hasiera hartan, 235.000 euroko aurrekontua jarri genuen, eta iaz 486.000 euro banatu genituen laguntzetan. Urtero berrikusten ditugu oinarriak, eta beharrezko egokitzapenak eta aldaketak egiten ditugu, herriko ehun ekonomikoaren beharrei ahalik eta ondoen erantzuteko.

Laguntza horiek eskaintzeko, zertan egiten du ahalegin berezia udalak?

Sektore eta tamaina guztietako negozioetara iristen saiatzen gara. Enpresa edo negozio

txikietako kideek behin baino gehiagotan esan izan digute, harrিতта, laguntzak industria enpresa handientzat soilik egoten zirela uste zutela. Albaina, sustapen ekonomikorako udal laguntzak merkatariek, familia enpresa txikiek, ekintzaileek eta abarrek ere eska ditzakete. Herriko ekonomiarentzat horiek guztiak dira garrantzitsuak.

Nolako harrera izaten dute sustapen ekonomikorako laguntzek?

Oso ona, urtez urte gero eta ezagunagoak dira. Batzuek, ohitura moduan, urte bateko laguntzetatik jasotako dirua hurrengo urtean inbertsioren bat egiteko ere gordetzen dute. Halakoak entzutea pozgarria da udalarentzat.

Aurtengo deialdia zabalik dago. Zer berrikuntza ditu?

Lehenik eta behin, 8.000 eurotik 12.000 euro-ra igo dugu bertako produktuen kontsumorako diru laguntzaren gehienezko zenbatekoa. Bestalde, zerbitzuen sektorean, diruz laguntzen diren inbertsioen artean sartu ditugu soinu mugatzailearen instalazio lanak. Era berean, merkataritzako establezimenduen kasuan, baldintza gisa ezarri da denda fisikoa edukitzea, Eusko Jaurlaritzaren MEC diru laguntzetan egiten duten bezala. Horrez gain, jarduera berri bat sartu da diruz lagundu daitezkeen zerrendan. Azkenik, eskatzaileak ekintzaile batek baino gehiagok osatutako enpresak direnean, Azpeitian erroldatuta dauden ekintzaileei emango zaie diru laguntza. ■

AZPEITIKO UDALA, AZPEITIKOOPEN BIDE LAGUN

Ekainaren 4an aurkeztu zuten jendaurrean Azpeitikoop kooperatiba, Azpeitian kooperatibismoa indartzea eta herriko kooperatiben arteko sarea sendotzea helburu duen egitasmoa. Herriko hainbat kooperatibak, Azpeitiko Udalak, norbanakoek, beste zenbait eragilek eta Mondragon Unibertsitateak elkarlanean garatutako prozesuaren emaitza da proiektua.

Aurkezpen ekitaldian Nagore Alkorta alkateak adierazi zuenez, kooperatiben eremuan sinesen du udalak: "Kooperatibek ekonomia egiteko beste modu bat proposatzen dute. Pertsonetan oinarritutako ekonomia sortzeko tresna dira. Balioetan oinarritzen dira, demokratikoak eta konprometitua dira. Lurraldean errotuta daude, eta inguruaz kezkatzen dira".

Udalaren ustez, herriko ekosistema kooperatiboa indartzeko tresna garrantzitsua izango da Azpeitikoop. Horregatik, bere jarduera gara dezan, 20.000 euroko diru laguntza eman dio egitasmoari.



Herrian kooperatiba berriak sustatzeko eta kooperatibismoa indartzeko parte hartze prozesu bati ekin diote Azpeitiko zenbait eragilek, eta horren emaitza izan da Azpeitikoop kooperatibaren sorrera. Kooperatibismoaren izpiritua indarberritzeko proiektua da.

EKOSISTEMA KOOPERATIBOA SUSTATZEKO HERRI AKORDIOA

Aspaldi sortutako kooperatibak zein kooperatiba berriak aurkitu daitezke Azpeitian, herrian ekosistema kooperatiboak duen garrantziaren erakusgarri. Izan ere, kooperatibismoak eragin positiboa du herritarrengan, pertsonetan oinarritzen den eredu ekonomikorako tresna baliagarria baita. Hala ere, ezinbestekoa da arloko eragileen elkar ezagutza sustatzea eta kooperatibismoaren izpirituari beste bultzada bat ematea. Behar horretatik sortu da Azpeitikoop kooperatiba, herrian kooperatibismoa indartzeko proiektua, hain zuzen ere.

Parte hartze prozesu baten ondorioa da Azpeitikoop; 2025eko udazkenean, herriko kooperatibek, Azpeitiko Udalak, hainbat norbanakok, bes-telako zenbait eragilek eta Mondragon Unibertsitateak bat egin zuten proiektua martxan jartzeko. Ekimena ez du enpresa edo norbanako bakar batek sustatu, eta, Joane Kortak, Azpeitikoopen talde era-

gilean aritutakoak, balio erantsi hori azpimarratu nahi izan du: "Herri mailako proiektu bat da, eta herri eragile mota desberdinek parte hartu dute prozesuan".

Basazabal jauregian egindako aurkezpen ekitaldian Mikel Ugarte Azpeitikoopeko langileak adierazi zuenez, kooperatiba berriak sustatzea eta kooperatibismoa indartzeko ekintzak gauzatzea da lortu nahi dutena. Horrenbestez, prozesu bat egin ondoren eta pres-taketa lan guztiak gauzaturata, abian jarri dute Azpeitikoop kooperatiba.

Kooperatiba egitasmo berriei laguntza edota bultzada eskainiko die Azpeitikoop proiektuak, eta aldi berean, martxan diren zein bidea urratzen hastear dauden ekimenei kooperatibismoarako pausoa ematen lagundu nahi die. Kooperatibaren jardunaz ere aritu da Korta, eta esan du Azpeitikoopen egitekoa ez dela izango kooperatiba berriak sortzea soilik izango, baizik eta egun

daudenei babesa ematea ere bai.

Elkarlana eta balioak

Kooperatibismoak hainbat arlotan indarra har dezan, eragileekin elkarlanean ariko da Azpeitiakoop; hezkuntza, komunikazioa, sustapena eta transmisioa ditu helburu nagusi, besteak beste. Izan ere, Alazne Larrañaga Iraurgi Berritzen garapen agentziako ekintzailetza eta merkataritza koordinatzaileak nabarmendu duenez, Azpeitiaren elementu bereizgarria da kooperatiben presentzia aurretik aipaturiko arloetan: "Horrek adierazten du herrian kooperatibismoak dituen balioekiko dagoen izaera eta konpromiso maila zer-nolakoak diren; horren islada da".

Egitasmoaren hastapenetatik oraintsu arte egindako lanke-tari esker, zenbait helburu finkatzea lortu dute Azpeitikoopen aritu direnek. Hain zuzen ere, Azpeitian kooperatiba komunitatea osatzea eta indartzea da Azpeitikoopen xede nagusia,



Hainbat arlotako eragileak, Soreasun, iazko ekainean, Azpeitikoopen sorrera prozesuko batzar baten ondoren. UTZITAKOA

onura soziala eta ekonomikoa bilatzeko eta herria zein herri-tarrak eraldatzen jarraitzeko. Elkarlanaren funtsezko jardue-ra gutxietsi gabe, "sinesgarritasunaren balioa" ere ardatz izango dutela jakinarazi du Ugartek. Beraz, ekinbideren bat gauzatzear dela ikusiz gero, gardentasunez emango diote horren berri herriari.

Azpeitikoopereko ordezkariak azaldu dutenez, proiektua progresiboa izatea nahi dute; hau da, pauso motelak baina seguruak emanez eremu gehiagotara hedatzea, aliatu eta bazkide gehiago erakartzearekin batera. Era berean, hiru figura finkatu ditu Azpeitikoopereko bazkidezari dagokionez: bertako kooperatibak, norbanakoak eta Azpeitikoopereko langileak. Gainera, herriko zazpi kooperatiba kooperatibaren bazkide egin dira—GUKA horien artean da—dagoeneko. Norbanakoak erakartzeko kan-

paina, berriz, datorren udazkenean egingo dutela jakinarazi dute.

Euskara lan tresna

Kooperatibaren beste "ezinbesteko balioa" euskara dela azpimarratu zuen Ugartek: "Euskara dugu lan tresna. Euskal Herriko arnagune nagusia da Azpeitia, baina alor sozio-ekonomikoan ere lanean segitu behar da, oraina eta etorkizuna euskaraz erakitzen". Jose Ignazio Otaegik, Lan Mobel kooperatiban urteetan lanean aritutakoak, adierazitakoaren arabera, Azpeitian aurkitu zuen ekosistema kooperatiboarekin liluratuta geratu zen, eta hark uste du gazteei balioak transmititu behar zaizkiela ikastetxeetako ekinbideen bitartez.

Kooperatibak Azpeitiko Udalaren babesa ere badu. Nagore Alkorta alkateak aurkezpenean esandakoaren arabera, kooperatiben eremuan "sinesten" du,

eta herriko sistema kooperatiboa sustatu nahi du: "Seguru gaude bide oparoa egingo duela Azpeitikooperekin, eta etorkizunean ere bidelagun izango duzue Azpeitiko Udala", esan zuen Alkorta.

Hastapenera iritsi izana jende askoren lanaren ondorioa dela azpimarratu zuten, halaber, aurkezpenean, eta horien artean iaz hil zen Xabier Aranbarri Kulturaz kooperatibako kudeatzailearen lana golestu zuen Ugartek: "Lehenengo momentutik proiektuaren sustatzaile eta arduradun lanetan aritu zen, eta hari ere eskerrak eman nahi dizkiogu".

Proiektu berria izan arren, Azpeitikooperekin baditu bidelagunak, eta haien arteko elkarlanari esker, helburua lortzen saiatuko da: kooperatibismoa ez dela lan egiteko modu bat soilik erakustea, herria erakitzeke tresna baizik. Bidea hasi besterik ez da egin.



PROZESU ZABAL BATEN ONDORIOZ SORTUTAKO PROIEKTUA

2021: 'Herri ekimena eta kooperatibismoa' jardunaldia eta ondorioak

2021eko urrian *Herri ekimena eta kooperatibismoa* nazio jardunaldia izan zen Azpeitian, Sanagustin kulturgunek 10 urte Herri Batzordeak antolatuta. Euskal Herriko udalerrri askotako jendea izan zen topaketan. Lehenik, David Fernandezek (Kataluniako Coop57) kooperatibismoaren inguruko hausnarketa egin zuen, eta, ondoren, Euskal Herriko lau esperientzia praktikotako ordezkariak hitz egin zuten: loritz Aizpuruk (Elikagunea, Azpeitia), Cristina Etxegoienek (Erreka Group, Mondragon korporazioa), Gartzen Garaioek (Ekintza Faktoria, Aiaraldea) eta Naroa Elortzak (Goienek, Euskal Herria). Hilabetera, *Herri ekimena eta kooperatibismoa* jardunaldiaren antolatzaileek hainbat ondorio atera eta argitaratu zituzten.

Sanagustin kulturgunek 10 urte Herri Batzordeak 2021 bukaeran amaitu zituen bere lanak. Handik, ordea, kooperatibismoaren gaiaz hitz egiten segitzeko talde bat sortu zen, eta Azpeitian sare kooperatiboa ehuntzeko eta kooperatibismoaren balioak zabaltzeko eta indartzeko asmoa atera zen.

2022: lehen bilera sorta eta batzarra

Asmo hari forma txiki bat eman, eta 2022an Azpeitiko kooperatibekin bilera sorta bat egin zuen aipatutako taldeak, banaka, ikusteko zer iritzi zuten eta zer giro zegoen. Baikorra izan zen emaitza, eta denen artean batzar ez-publiko bat egin zen gero. Udal gobernua (EH Bildu) eta EAJren udal taldeak ere parte hartu zuten bilkuran.

Horrenbestez, garrantzitsutzat jo zen herriko ekosistema kooperatiboak elkar ezagutza izaitea eta sarea osatzea.

2024: prozesuaren hasiera

Asmoa 2023an geldirik egon ondoren, prozesu bati ekin zitzaion 2024ko udazkenean. Talde eragilea sortu zen, eta sarea osatu: herriko kooperatibak, udala, norbanakoak eta Mondragon Unibertsitatea. Iraurgi Berritzen Urola bailarako garapen agentziarekin ere hartu-eman izan zen, eta Euskal Herriko beste eragile batzuekin ere bai.

2025: proiektua onartu

Eragileekin hainbat bilera egin eta bestelako hartu-emanak izan ondoren (horrez gain, asko landu zen barne komunikazioa),

sareko hiru batzar ez-publiko egin ziren prozesuan:

- 2024ko abenduaren 3an, batzar informatiboa, Azpeitiko eta bailarako diagnostiko sozio-ekonomikoa aurkezteko eta prozesua nola zihoan azaltzeko.
- 2025eko martxoaren 11n, proiektuaren gako nagusiak onartzeko.
- 2025eko ekainaren 30ean, proiektua onartzeko (onartu egin zen dokumentua, eta AzpeitiKoop kooperatiba sortzea erabaki).

2026: ekintza plana ontzat jota, martxan

2025eko udazkenean AzpeitiKoop sortzeko lanak egin ziren: kapitala, estatutuak, jarduera ekonomikoa... Urte bukaeran langilea hartu zen deialdi publiko baten ondoren, eta 2026ko urtarrilean hasi zen lanean. 2026ko lehen lau hilabeteetan urteko ekintza plana prestatzen egon zen talde eragilea, aurreko urteko ekaineko batzarrean onartutako dokumentuari jarraiki (ildoak eta egitasmoak, finantzazioa, egitura...), eta joan zen apirilaren 27an sareko batzarrean ontzat jo zen urteko ekintza plana. Aurkezpen publikoa, berriz, ekainaren 4an egin zuten. ■

KOOPERATIBAK UROLA KOSTAN



LAN ELKARTUKO

63
kooperatiba



IRAKASKUNTZAKO

5
kooperatiba



NEKAZARITZAKO

7
kooperatiba



KONTSUMO ETA
ETXEBIZITZAKO

13
kooperatiba



ZERBITZUETAKO

3
kooperatiba



4
kooperatiba
MISTO



BIGARREN
MAILAKO

2
kooperatiba

KOOPERATIBAK HERRIZ HERRI

AIA **13**

AIZARNAZABAL **2**

AZKOITIA **11**

AZPEITIA **40**

ERREZIL **4**

GETARIA **4**

ORIO **5**

ZESTOA **9**

ZUMAIA **9**

GUZTIRA

97

NIK

hik, hark, denok

GUKA EGITEN DUGU



Fermin Alvarez / Itsas
geologoa

Zarautz

**ZUK ERE
EGIN GUKA**
egin bazkide

Guka independentea da eta komunitatean du oinarria. Herritik eta herriarentzat sortua izanik, aurrera egiteko, guztion babesa eta lankidetzaz ezinbestekoak dira.

GUKA

Eskaneatu QR-a, eman zure babesa



BieleGroup

PASSION FOR CHALLENGES



Bulego nagusia

Larrañaga Industrialdea, 1 - 20738 Urrestilla, AZPEITIA Gipuzkoa

Tel.: +34 943 15 70 50

biele@biele.com

www.biele.com